



AZALPENA:

Batetik, Donostiaren ezaugarri bereziren bat aipatzekotan **natura eta gizakia elkartzeko garaian**, kasu gehienetan, erabilitako egokitasuna azpimarratu beharko genuke (Kontxa, zabaldua...), baina balioa handia duten beste elementu natural batzuk ez dira behar adina baloratu. Donostiako eremu naturalak zaintzea eta balioa ematea helburu izango lituzkeen jarduerak protagonismo handiagoa emango lieke eremu natural horiei hirian. Urumea ibaia, Ulia...bigarren mailako baloreak eta elkarrekin lotu eta zaindu behar ditugun **eremu naturalak**.

Bestetik, **hirigintzako politika berriek muga ideia txertatzearen beharra**. Plan Estrategikoa adierazten zen bezalaxe, (A.2.2 Estrategia), "*Zaindu eta kontserbatu behar diren eremuen mugaketa ezinbestekoa da. Mugaketa hori egiteko ez lirateke bakarrik natura edo ekologi baloreak kontuan hartu beharko, baizik eta lehenengo sektorearekin eta bere baliabide naturalekin loturiko balore produktiboak, paisaia baloreak eta balore zientifiko-kulturalak ere kontuan hartu beharko lirateke*"

HELBURUAK: A-2 helburuan du, bereziki, eragina: *Elkarri lotutako eta kalitate handiko hiri eremu bat lortu zeinetan hiri erreferente eta modelo bezala kualifikatzen den hiritarrentzako errekonstruzioan, hiriko balore historikoak elementu estruktural berriekin lotuz jasagarritasuna oinarritzat hartuta*

DESKRIPZIOA:

Eremu naturalekin loturiko ekintza ezberdinak lotzean datza beren berrikuntza eta donostiarren eta bisitarien erabilera sustatuz. Naturekin erabat lotuta dagoen Donostia osatzen duten eremu naturalei balore handiagoa ematea da helburua, askotan estalita geratzen baitira badiarengatik. Proiektuak honako eremu hauek lantzeko helburua du, beste batzuen artean:

- Ametzagañako parkea
- Ulia, Kristina Enea, Satrustegi, Urgul, Miramon, Lau-Haizeta indartu eta babestu.
- Urumea ibaiaren berreskurapena hiriaren balore den aldetik. Urumeako ibai parkea